

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO  
BILERA**

**2009ko azaroaren 27a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta bederatzigarren urteko azaroaren 27an, ortziralea, ilunabarreko zazpitan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Juan Fermín Michelena Larralde alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Laura Yanci Michelena, José María Portu Ochoteco, Andoni Marichalar Mendia, Pedro Apezteguía Alzugaray, Deñe Abuin Arrasate, Tomás Maya Tapia, José Félix Aletxa Barrena, Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco eta Juan Carlos Ayala Fernández jaun-andreak.

José Manuel Merino Ramos zinegotzi jauna ez da agertu, etorri ez izana justifikatuta.

Idazkari-lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION  
AKTAREN ONESPENA.**

Udalbatzak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2009ko urriaren 30ekoa.

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO**

**27 de noviembre de 2009**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 27 de noviembre del año dos mil nueve, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Juan Fermín Michelena Larralde y con la asistencia de los siguientes concejales: doña Laura Yanci Michelena, don José María Portu Ochoteco, don Andoni Marichalar Mendia, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña Deñe Abuin Arrasate, don Tomás Maya Tapia, don José Félix Aletxa Barrena, don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco y don Juan Carlos Ayala Fernández.


No acude, habiendo excusado su inasistencia, el concejal don José Manuel Merino Ramos,

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA DE LA  
ÚLTIMA SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta correspondiente a la última sesión, celebrada el día 30 de octubre de 2009.



**2 - EMILIANO ELGORRIAGA LASAGA JAUNAK OIHAN-PROBETXAMENDUA EGITEKO ESKAERA.**

2009ko urriaren 26an aurkeztutako eskaera (Udal-Erregistro Orokorreko 2.686. sarrera) aztertuta, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

1) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Antolamendu Atalaren aitzinean tramitatzea Emiliano Elgorriaga Lasaga jaunak eginiko eskaera, Zalain-Zoko auzoko Arranbideta izeneko alderdian dagoen 9.178 m<sup>2</sup>-ko lur-eremu bateko hogeita hamar bat arbola ttiki (akaziak, haltzak, platanok eta lizarrak) probexteko. Katastroko 1. poligonoko 109. eta 210. lur-zatiei dagokie. Probetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2009/20.

2.) Interesatuari jakinaraztea ekarritako eskrituran agertzen den lur-zatia katastroko 1. poligonoko 238. lur-zatia dela, lur zati hori katastroan bere izenean agertzen dela eta 8.477,85 m<sup>2</sup> dituela. Hala ere, berak eskatzen duen probetxamendua 1. poligonoko 109. eta 210. lur-zatietan dagoenez eta horiek komunaltzat hartuta daudenez, adierazten zaio kasu honetan probetxamendua onartuko zaiola, baina hemendik aitzinera lur-zati horiek erabat komunaltzat hartuko direla eta Emiliano Elgorriaga Lasaga jaunak ez duela izanen inolako eskubiderik lur-zati horietan.

**3 - FERMÍN OCHOTECO TELLECHEAK SUSTATUTAKO HERRI-**


**2 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR DON EMILIANO ELGORRIAGA LASAGA.**

Examinada la instancia presentada con fecha 26 de octubre de 2009 (entrada nº 2.686 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Ordenación Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Emiliano Elgorriaga Lasaga, para aprovechar unos treinta árboles de pequeñas dimensiones (acacias, alisos, plátanos y fresnos) existente en un terreno de 9.178 m<sup>2</sup>, ubicado en el paraje de Arranbideta, en el barrio de Zalain-Zoko. Corresponde a las parcelas 109 y 210 del polígono 1 del catastro. Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2009/20.

2º) Indicar al interesado que la finca señalada en la escritura que ha aportado, se considera que es la parcela catastral 238 del polígono 1, que figura a su nombre en el catastro con una superficie de 8.477, 85 m.2. Sin embargo al estar el aprovechamiento ubicado en las parcelas 109 y 210 del polígono 1, catalogadas como comunales, manifestarle que en este caso se le autorizará el aprovechamiento, pero que, en lo sucesivo, ese terreno se considerará comunal a todos los efectos, sin que don Emiliano Elgorriaga Lasaga tenga derecho alguno sobre el mismo.

**3 - CONVENIO TRANSACCIONAL DE BIENES COMUNALES PROMOVIDO POR**



The bottom of the page contains several handwritten signatures and stamps. On the left, there is a large, stylized signature. In the center, there is a signature that appears to be 'Fermín Ochoteco' with a small number '2' below it. To the right, there are several other signatures and stamps, including one that looks like 'Don Emiliano Elgorriaga Lasaga'.

**ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO- FERMÍN OCHOTECO TELLECHEA.  
HITZARMENA.**

1995eko urriaren 23ko 131. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio-Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena.

Espediente horri zehazki dagokionez, Nafarroako Gobernu Komunalen Atalak honako hau dioen informe bat idatzi du 2009ko urriaren 19an:

Hitzarmen hori Lesakako Udalak eta Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiak onartu zuten, lehenak 2006ko maiatzaren 12an, eta bigarrenak, otsailaren 17ko 0255/2009 ebazpenaren bidez. Eskriturak egiterakoan, akats bat aurkitu da, partikularrak zuen azalera ez baitzen 274.030 m<sup>2</sup>, baizik eta 270.403 m<sup>2</sup>; beraz, berari 44.020,15 m<sup>2</sup> dagozkio eta ez 47.085 m<sup>2</sup> aitzinekoan tramitatu zen bezala. Bertze hitzarmen bat idatzi da neurri zuzenak jasotzeko, eta, Udalak eta jabeak hori onartu eta gero, aitzineko hitzarmenean egindako akatsa zuzenduko da Ebazpen baten bidez.


Espedientean, halaber, Basarte S.L. enpresako Andrés Zelaieta teknikari jaunak egindako informea ageri da. Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du. Dokumentu horren arabera, 226.382,85 m<sup>2</sup>-ko azalera herri-ondasunerako izanen da eta, partikularrarentzat, berriz, 44.020,15 m<sup>2</sup> izanen

En el Boletín Oficial de Navarra nº 131, de 23 de octubre de 1995, se publicó el Decreto Foral 457/1995, de 9 de octubre, que aprobaba las Bases del Convenio Transaccional sobre recuperación de bienes comunales en el municipio de Lesaka.

Por lo que se refiere concretamente a este expediente, la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra ha emitido con fecha 19 de octubre de 2009 un informe donde se señala que:

Este convenio fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Lesaka, con fecha 12 de mayo de 2006, y por el Director General de Desarrollo Rural del Gobierno de Navarra, mediante Resolución 0255/2009, de 17 de febrero. Al realizar las escrituras se ha detectado un error en el mismo al comprobar que la superficie aportada por el particular no era de 274.030 m<sup>2</sup> sino de 270.403 m<sup>2</sup>, lo que supone una merca en la superficie asignada que será de 44.020,15 m<sup>2</sup>, y no de 47.085 m<sup>2</sup>, como se tramitó. Se ha redactado un nuevo convenio con los valores correctos y una vez que lo apruebe el Ayuntamiento y el propietario, se corregirá mediante Resolución el error cometido en el anterior convenio.

Consta asimismo en el expediente el informe emitido por el técnico de la empresa Basarte S.L. don Andrés Zelaieta. El borrador ha recibido igualmente el visto bueno de la Comisión de Montes del Ayuntamiento. Conforme a lo indicado, queda para el comunal una superficie de 226.382,85 m<sup>2</sup>, en tanto que al particular se le



Handwritten signatures and stamps at the bottom of the document, including a large circular stamp on the left and several signatures across the bottom.

dira.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak azaroaren 5ean egindako txostena ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikulua eta Toki Erregimeneko Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen (toki-gobernua modernizatzeko neurriari buruzko azaroaren 16ko 57/2003 Legearen bitartez aldatua) 45.2.n artikulua eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo osoa lortuta–, honako hau erabaki du:

1.) Fermín Ochoteco Tellechea jaunak sustatutako herri-ondasunei buruzko transakzio-hitzarmena onartzea.

2.) Interesdunari jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onartzeko, Oinarrietako 14. artikulua dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

adjudican 44.020,15 m2.

Figura igualmente en el expediente un informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el día 5 de noviembre.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de sus miembros, -con lo que se obtiene la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación exigida por el artículo 116.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra y el artículo 47.2 n de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local (modificada por la Ley 57/2003, de 16 de noviembre, de medidas para la modernización del gobierno local)-, acuerda:

1º) Aprobar el convenio transaccional de bienes comunales propuesto por don Fermín Ochoteco Tellechea.


2º) Comunicar al interesado que deberá acudir al Ayuntamiento para firmarlo.

3º) Una vez cumplido lo dispuesto en el punto anterior, que se remitan copias diligenciadas de todos los documentos citados al Gobierno de Navarra, a fin de que éste proceda a su aprobación, de acuerdo a lo establecido en el artículo 14 de las Bases.

4º) Conforme a lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 30 de abril de 2004, el metro cuadrado de terreno rústico sujeto a convenio transaccional de bienes comunales se valorará en 0'16 euros.

4 - UDAL-TALDEENTZAKO  
AHOLKULARIAK.

4 - ASESORES PARA LOS GRUPOS  
MUNICIPALES.



Espedientean, Alkatezaren proposamena agertzen da, azaroaren 24koa; letraz letra, honako hau dio:

Alkate jaunak proposatzen du Lesakako Udalean dauden hiru udal-taldeek aukera izan dezatela beren aholkularia izendatzeko.

Batetik, azken urte hauetan nabaritu da gero eta lan-bolumen handiagoa dagoela eta, gainera, gero eta lan korapilatsuagoa dela. Bertze alde batetik, zinegotziek udal-aferei ematen dieten denbora nahitaez mugatua da. Horregatik, gomendagarria da bai Alkatezaren bai bertze udal-taldeek beren konfiantzako pertsona bat izatea lan horietako batzuetan laguntzeko; batez ere, estrategiak eta proiektuak diseinatzen laguntzeko, horiek sortzen ari direnez eta isilpekoak direnez ezin direlako oraindik utzi udal-langileen eskuetan edo udalak kontratatutako teknikarien eskuetan.

Bertzetik, udal ttiki batek, hala nola Lesakakoak, ezin ditu ordaindu behin-behineko langileak, konfiantzako edo aholkularitza bereziko karguak bete ditzaten, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 89. artikulua xedatutakoaren arabera.

Aukeretako bat da udal-taldeekin lotutako pertsonengana jotzea, horiek beren denboraren zati bat -dohainik eta eskuzabaltasunez- aholkularitza-lanetan emateko prest badaude. Aholkulari horiek ez dute beren lanarengatik kobratuko eta haiengatik ez da Gizarte Segurantzako kuotarik ordainduko; beraz ez dute inolako lan-harremanik izanen

Consta en el expediente la propuesta de la Alcaldía, de fecha 24 de noviembre, cuyo tenor literal es el siguiente:

El señor alcalde propone que cada uno de los tres grupos municipales presentes en el Ayuntamiento de Lesaka tenga la posibilidad de nombrar a un asesor propio.

Por una parte, desde hace años se observa un progresivo aumento del volumen de trabajo, que tiene además una creciente complejidad. Por otra, el tiempo que dedican los concejales a los asuntos municipales es forzosamente limitado. Ello hace aconsejable que tanto la Alcaldía como los restantes grupos municipales puedan contar con una persona de confianza que les ayude en algunas de esas tareas, especialmente en lo que respecta al diseño de estrategias y proyectos, que por su carácter embrionario y reservado, no pueden ser aun encomendados a los empleados municipales o a técnicos contratados por el municipio.

Por otra parte un Ayuntamiento de pequeña dimensión, como el de Lesaka, no puede permitirse la contratación del personal eventual que desempeñe puestos de confianza o asesoramiento especial, conforme a lo previsto por el artículo 89 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Una posibilidad consiste, por lo tanto en recurrir a personas relacionadas con los grupos municipales y que estén dispuestas a destinar -de forma gratuita y desinteresada- parte de su tiempo a estas tareas de asesoramiento. Estos asesores no cobrarán por su función, ni se cotizará por ellos a la Seguridad Social, por lo que no existirá relación laboral alguna con el

Herriko Etxearekin.

Haien jarduera honako arau hauek erregulatuko dute:

1.) Ez dute Herriko Etxeko giltzarik izanen; beraz, hona, bulego-orduetan etorri beharko dute edo, ordutegi horretatik kanpo, zinegotzi batekin.

2.) Alkateak duen informazio-eskubide bera izanen dute, Alkatezan dagoen taldekoak badira, eta zinegotziek duten bera bertze taldeetakoak badira.

3.) Zinegotziek erabiltzen dituzten baliabide material berak (ordenagailua, faxa, fotokopiagailua, etab.) erabili ahal izanen dituzte.

4.) Udalak eskatuta egiten dituzten bidaiengatik edo jarduerengatik ordaindu ahal izanen zaie (egindako kilometroak edo mantenua), baldin eta gastuak justifikatzen badituzte.

5.) Aholkularia onar dadin, talde bakoitzak aski izanen du Udal-Erregistro Orokorrean idatzi bat aurkeztea hura identifikatzeko. Aholkularia ordezkatu behar bada, sistema bera erabiliko da.

Eztabaida hasita, Deñe Abuin andreak eskatu du gai hau oraingoz landu gabe uzteko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari informe bat galdatzeko.

Alkateak dio bozkatzen hasiko direla.

Hori entzunda, Deñe Abuin andreak honako idatzi hau eman dio idazkariari, hark irakur dezan:

Ayuntamiento.

Su actividad se regirá por las siguientes reglas:

1º) No dispondrán de llaves de las dependencias municipales, por lo que deberán acceder a las mismas o bien en horario de oficina o bien, fuera de éste, junto con algún concejal.

2º) Tendrán el mismo derecho de información que el alcalde, por lo que respecta al grupo que ostente la Alcaldía y el correspondiente a los concejales en los restantes grupos.

3º) Podrán utilizar los mismos medios materiales (ordenador, fax, fotocopidora, etc.) que los concejales.

4º) Podrán abonárseles indemnizaciones (pago de kilometraje o manutención) por los viajes o actividades que realicen a petición del Ayuntamiento y previa justificación de los correspondientes gastos.

5º) Para que les sea reconocido el asesor, cada grupo tendrá simplemente que presentar en el Registro General del Ayuntamiento un escrito identificando al mismo. En caso de que proceda a su sustitución, seguirá el mismo sistema.

Iniciado el debate, doña Deñe Abuin solicita que se deje este asunto sobre la mesa, solicitándose un informe a la Federación Navarra de Municipios y Concejos.

El alcalde indica que se procederá a la votación.

Ante ello doña Deñe Abuin entrega al secretario, para que proceda a su lectura, el siguiente escrito:

Handwritten signatures and marks at the bottom of the page, including a large scribble on the left and several distinct signatures on the right.

**“4. puntua - UDAL-TALDEENTZAKO AHOLKULARITZA**

1. Eskatzen dugu akordioa oraingoz landu gabe uzteko eta, era berean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari informe bat galdatzeko. Ez baitakigu:

Zein diru-sailetan sartuko ditugu gastu horiek?

Zein diru-sailetatik kenduko dugu dirua politika-aholkulari altruista horiei ordaintzeko? (Zaharren Egoitzako diru-sailetik izanen da ala Kulturarako diru-sailetik?)

Zein irizpideri segituko zaio gastu horiek ordaintzeko?

Zertan oinarrituta?

Gehienez ere, zenbat ordainduko zaie? Hilero? Hiru hilabetean behin ala urtean behin?

Nork erabakiko du noiz eta nola ordezkatzan duten Herriko Etxea?

Ordainsarrietan zehaztutakoa baino gehiago gastatzen ahal dute?

Ulertzen dugu alkateak aholkularitza handiago eskatzea; ulertzen dugu zeren alkatetzan dagoela oraindik bi hilabete pasatu ez direlarik lortu duelakoz Udaleko giroa gaiztotzea, oposizioan dagoen taldeari eman dion tratua erengatik, hobeki erranda, tratua txarrarengatik, eta herriko giroa ere gaiztotu du, iradoki duelakoz Andramari Zahar Etxean arratseko txandako lanpostu bat kenduko dela. Zahar Etxeko langileek, han bizi direnek eta haien familiek orain dela hainbat urte eskatzen zuten lanpostu hori eta orain dela bi urte lortu zena, hara zer-nolako luxua, arratseko txandan bi langile egotea 40 lagun zaintzeko. (Badirudi ez dagoela nahikoa diru gure adinduek zaintzeko baina bai politika-profesionalek aholkua eman dezaten); azalpen bat behar dugu, guk ez baitugu deus ulertzen.

Bertze alde batetik, Udalak kontratatutako profesionalak eta zerbitzuak zalantzatan jartzen dira, errate baterako

**“Punto num 4 - ASESORIA PARA LOS GRUPOS MUNICIPALES**

1º. Solicitamos que el acuerdo se deje encima de la mesa y paralelamente se solicite informe a la Federación de Municipios y concejos . No sabemos:

¿A qué partida cargaremos estos gastos?

¿De qué partida quitaremos para pagar a estos altruistas asesores políticos? (¿Será de la Residencia o será de la partida de Cultura?)

¿Con qué criterio se abonarán estos gastos?

¿En base a qué?

¿Con qué tope en la cuantía? ¿Será mensual? ¿Trimestral o anual?

¿Quién o quienes decidirán cuando y de qué manera representan al Ayuntamiento?

¿Pueden superar las dietas ?

Entendemos al alcalde cuando pide más asesoramiento; le entendemos porque sin hacer 2 meses en la alcaldía ha conseguido enriquecer el ambiente no solo en el Ayuntamiento por el trato o más bien maltrato al grupo de la oposición, sino también en el pueblo, por ejemplo dando entrever la supresión de un puesto de trabajo en el turno de noche en la Residencia Andramari. Algo demandado por familiares, residentes y trabajadores de la propia residencia durante años y que desde hace dos es una realidad, algo tan lujoso como dos trabajadoras durante el turno de noche para 40 residentes. (Al parecer no hay dinero suficiente para el cuidado de nuestros mayores y si para asesoramiento de profesionales de la política) que alguien nos lo explique, que nosotros/as no lo entendemos.

Por otro lado se cuestiona a profesionales y servicios contratados por el Ayuntamiento como el caso de

Nasursaren lana (udal-hirigintzarako aholkularitza), eta bertze arkitekto batzuei eskatu zaie hirigintza-informeak eta -lanak berrikus ditzaten.

Baina ez dira bakarrik zalantzan jartzen teknikari horiek, baita bertze Udaletako politikariak ere; izan ere, bertze hiru udalekin batean egindako bideo-gida baterako proiektu komunaren proposamena aztertu nahi dute, uste baitute hor interes gordeak badirela. Uste eta susmo horiena ezaguna egiten zaigu, orain dela ez anitz gure taldea ere susmagarria baitzen, baina oraindik ez dakigu zergatik.

Ondoko herri bateko alkateren batek bere udaleko osoko bilkurak hartutako akordio baten bidez iradoki zuen Alkaiagan Orsaren Asfalto-fabrika egiteko baimenik ez emateko Iparaldeko Ur Konfederazioari informea eskatu arte, ez baitzen eskatua eta interesgarria bailitzateke informe hori izatea; alegazioei ere erantzun behar zitzaizela, etab. Haren iradokizuna eskertu beharrean, modu txarrean erantzun zitzaion, erranez, gutti goiti-behiti, bertze udalen kontuetan ez sartzeko.

Hori dena erranda, eta gerrikoa estutzearekin hain bateragarria den neurri hori onartzeko asmoarekin aitzinera segitzen duzuela ikusita, zalantza anitz sortu zaizkigu EAJk behar dituen politika-aholku horiek ordaintzeko moduaren gainean eta galdera bat edo bertze.

#### Zalantzak:

1. Zergatik orain neurri hori eta ez EAJren aitzineko agintaldietan?
2. Zergatik berridatzi da 4. puntua?
3. Aktetan argitaratuko dugu ordainsari horiek zenbatekoak diren, zinegotzienekin egin genuen bezala?
4. Eta ordaintzeko irizpideak?
5. Aholku gehiago behar duzu edo, bertzerik gabe,

Nasursa (asesoría urbanística municipal) mandando a otros arquitectos la revisión de informes o trabajos urbanísticos.

No solo se cuestiona a técnicos, también a políticos de otros Ayuntamientos a la hora de valorar propuestas como la video-guía, proyecto común con otros tres municipios por sospechas de intereses ocultos. Esto de las sospechas nos suena, no hace tanto nuestro grupo era también sospechoso de todavía no tenemos claro de qué.

Algún alcalde vecino sugirió con un acuerdo plenario de su municipio que en el caso de la Planta Asfáltica Orsa no se le diera permiso para su instalación en Alkaiaga hasta pedir el informe a Hidrográficas del Norte algo que no se había hecho y que interesaría tenerlo, como también que se contestara a las alegaciones etc. En lugar de agradecer la sugerencia se le contesta de malas formas, poco más o menos diciéndole que no se metiera en otro Ayuntamiento.

Dicho esto y a la vista de que seguís con la intención de aprobar esta medida tan acorde con los tiempos de apretarse el cinturón, nos surgen muchas dudas y alguna que otra pregunta de cómo se pretenden pagar estos asesoramientos políticos que necesita el PNV.

#### Las dudas:

1. ¿Por qué ahora esta medida y no en los anteriores mandatos del PNV?
2. ¿Por qué se modifica la redacción inicial del punto 4º?
3. Publicaremos en las actas la cuantía de estas dietas al igual que hicimos con las de los concejales/as
4. Y los criterios para pagarlas.
5. ¿Necesitas más asesoramiento o sencillamente

aholkularia aldatu behar duzu?

6. Eta Eusko Alkartasunak zer iritzia du horri guziari buruz?

7. Onetsi behar du?

ONINen argi dugu Udal honek, duen egoera ekonomiko kaxkarra ikusita, ez duela zertan zentimo bat gehiago ordaindu zure politika-aholkularientzat. EAJk zure aholkularientzako gastu gehigarri hori ordaindu ezin badu, bururatzan zaigu Alkatetza uzten ahal diozula zu baino prestatuago dagoen eta aholku gehigarri behar ez duen bati. Zure kideetako edozeinek baditu guttieneko gaitasunak kargurako eta, zorte pixka batez, ez ditu zalantzan jarriko kontratatutako teknikoen lana eta profesionaltasuna eta ez du horren inguruko susmorik izanen, eta, jakina, ez ditu gaiztotuko bertze udalekiko harremanak; bertze legealdietan, bertze alkate batzuk interes eta kontu handiz saiatu ziren lotura horiek sortzen eta eskualdea bultzatzen.

**Azkenik, erran behar dugu horren kontra bozkatuko dugula, kontu horretarako ordaintzen diren faktura guzi-guziak zehatz-mehatz aztertuko ditugula eta Nafarroako Administrazio Epaitegiaren aitzinean akordio honen kontra helegitea jartzeko aukera burutan dugula.**

Alkate jaunak honela erantzun dio idatziaz: "Garbi da Oninek ez duela ulertu asesorearena dohainik dela: ez du ezer kobratu behar.

Andra Mariren lanpostuan alkateak ez du ezer kendu. Andra Marín badago zuzendaritza bat eta berak onartu ditu plantilla eta aurrekontuak, Pleno honetan onartu behar direnak".

Teknikariak ari garela berriak hartzen eta hori zer kostatuko den, irrigarria da. Justu Onin egon da Hirigintza eramaten eta bi hilabete falta

tienes que cambiar de asesor?

6. Y Eusko Alkartasuna ¿qué opina de esto?

7. ¿Lo va a aprobar?

Desde ONIN tenemos claro que este Ayuntamiento y su ya maltrecha economía no tienen por qué pagar ni un céntimo más en tus asesores políticos. Si el PNV no puede asumir ese gasto de pluses para tu asesoramiento, se nos ocurre que dejes la Alcaldía a alguien que este más preparado y no necesite este asesoramiento extra. Cualquiera de tus compañeros estará mínimamente capacitado para el cargo y con un poco de suerte no dudará, ni sospechará tanto del trabajo y la profesionalidad de los técnicos contratados y por supuesto no hará que empeoren las relaciones con otros Ayuntamientos algo que desde otras legislaturas otros alcaldes pusieron mucho mimo e interés para unir lazos y hacer comarca.


**Por último decir que votaremos en contra, que vamos a revisar con lupa todas y cada una de las facturas que se paguen en este concepto, y que estudiaremos la posibilidad de recurrir este acuerdo ante el T.A.N."**

En respuesta al mismo el señor alcalde indica: "Está claro que Onin no ha entendido que el asesoramiento es gratuito: no va a cobrar nada.

En el puesto de trabajo de Andra Mari el alcalde no ha quitado nada. En Andra Mari hay una dirección y ella ha aprobado la plantilla y los Presupuestos, que deben ser aprobados en este Pleno.

En cuanto a los técnicos, que estamos cogiendo nuevos y el coste que eso tendrá, eso es de

risa. Justamente lo que Onin ha hecho al llevar



13.000 euro gastatu dira partidatik gora.

Eta dudarikan nik ez dut, lehendabiziko defendatuko dudala Lesaka eta ez sartzan ondoko udal bat konpontzen saiatzen. Nahiko lan dugu bakoitzak bere Udala zuzentzen”

Abuinek: “Alkateak hori erranen du, baina aholkularien ordezkarietarako kilometrajea eta gastuak aipatzen ari dira.

Zaharren Egoitzako Aurrekontuari dagokionez, hura, lehenbizi, Patronatuaren eskutik pasatzen da; Alkatea da horren presidentea eta Udalaren ordezkari bakarra gobernu-taldea da. Ez dugu uste Zahar Etxeko zuzendaritzak duenik erantzukizun guzia.

Aipatzen duzun aholkularitza gehigarriko 13.000 euroko diru-sail hori Oninek ezin izan du eskatu. Lehenbizi, ikusi ea egia den eta, gero, zertarako egin den.

Bertzetik, Lesakako arazoak ez dira Lesakako Udalarenak bakarrik. Jakina, erantzukizuna gurea da, baina iradokizunak edo proposamenak eskertzen ahal dira edo kasurik egin ez. Baina erantzuteko erabili diren formak ez dira egokienak”.

Alkateak: “Andra Mariko Aurrekontuetarako proposamenean, Batzorde guzia ados zegoen, jakina, eta badira bi kide ez direnak gobernu-talde honetakoak”.

Abuinek: “Hiru dira, egia erran lau, Udalekoak ez direnak, baina badago postu bat hutsik dagoena”.

urbanismo y faltando dos meses, se han gastado 13.000 euros más que en la partida.

Y no tengo dudas de que lo primero que yo defenderé será a Lesaka, y no meterme a intentar arreglar un ayuntamiento vecino. Cada uno tenemos suficiente trabajo dirigiendo nuestro ayuntamiento”

Abuin: “El alcalde dice lo que dice, pero se está hablando de kilometraje y gastos de representatividad del asesor.

En cuanto al Presupuesto de la Residencia, pasa primero por un Patronato en el que él es presidente y la única representación del Ayuntamiento es del equipo de gobierno. No nos parece que recaiga toda la responsabilidad sobre la dirección de la Residencia.

En cuanto a la partida de asesoría extra que dice, de 13.000 euros, Onin no la ha podido encargar. Primero a ver si es verdad y luego en base a qué se ha hecho.

En cuanto a los problemas de Lesaka no son solo del Ayuntamiento de Lesaka. La responsabilidad por supuesto que es nuestra, pero las sugerencias o las propuestas de otros ayuntamientos, pues se pueden agradecer o no hacer caso. Pero las formas con las que se ha respondido no son las mejores”.

Alcalde: “La propuesta de Presupuestos de Andra Mari, por supuesto que toda la Junta estaba de acuerdo y hay dos miembros que no son de este equipo de gobierno”.

Abuin: “Son tres, en realidad cuatro, los que no son del Ayuntamiento, pero hay una vacante”.

Alkateak: "Bi postu huts daude, batek bere aulkia galdu zuelakoz".

Abuinek: "Ezin diguzu erran nor joan den?"

Alkateak: "Echarte".

Horren ondotik, bozketa egin da. EAJ/PNV taldeko bortz zinegotziek eta EAko biek Alkatezaren proposamenaren alde bozkatu dute eta Onineko hirurek, berriz, kontra. Beraz, proposamena onartu egin da.

## 5 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Azken bileratik gaur arte Alkatezaren emandako ebazpen guzrien zerrenda irakurri da.

Ondoren eta Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek, premiazko arrazoiak direla-eta, Udaltzaren eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihon gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Horri dagokionez, Deñe Abuinek erran du azaroaren 24an eskatu zuela bi gai lan daitezen:

- Estatuko zeharkako zergen igoera 2010. urterako.
- Peio Gurbindorekiko eta Xabi Lasarekiko elkartasuna.

Alcalde: "Son dos vacantes, porque una perdió su escaño".

Abuin: ¿No nos puedes decir quien se ha ido?.

Alcalde: "Echarte".

Seguidamente se procede a la votación. Votan a favor de la propuesta de la Alcaldía los cinco concejales de EAJ/PNV y los dos de EA, haciéndolo en contra los tres corporativos de Onin. Queda, de esta forma, aprobada.

## 5 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se da lectura a una relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta la fecha.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

Al respecto, doña Deñe Abuin indica que el grupo Onin ha solicitado con fecha 24 de noviembre que sean tratados dos asuntos:

- La subida de los impuestos indirectos del Estado para el año 2010.
- Solidaridad con Peio Gurbindo y Xabi Lasa.

Alkate jaunak dio ez duela uste gai horiek presazkoak direnik eta bertze noizbait gairen bat osoko bilkuran eztabaidatzea nahi badute dagokion astelehenean proposamena egin behar dutela gaitzerrenda egiteko garaian aintzat har dadin.

Koldo Aingeru Erquiciak dio berak ez duela horiek irakurtzeko aukerarik izan.

Horren ondotik, bozketa egin da eta EAJ/PNV taldeko borts botoekin eta EAko biek in erabaki da gai horiek ez direla presazkoak. Onineko hiru zinegotziek, berriz, gai horiek presakotzat jotzearen alde bozkatu dute. Ondorioz, gai horiek ez dira landu.

El señor alcalde indica que no considera que los temas sean urgentes y que otra vez, si desean que un asunto sea tratado en la sesión, pueden formular la propuesta el lunes correspondiente, para que, en su caso, sea tenida en cuenta a la hora de elaborar el orden del día.

Don Koldo Aingeru Erquicia indica, por su parte, que no ha tenido la oportunidad de leerlas.

Se procede seguidamente a la votación, siendo rechazada la urgencia con los cinco votos de EAJ/PNV y los dos de EA. Los tres concejales de Onín votan a favor de que los temas se consideren urgentes. En consecuencia, no son examinados los citados asuntos.

## 6 - OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. GALDERAK.

Alkate jaunak dio Defñe Abuin andreak azken bilkuran egindako eskariari eta galderari erantzuna eman behar diela. Horretarako, idazkariari honako idatzi hau eman dio hark irakur dezan:

### “ONIN UDAL-TALDEAK EGINDAKO GALDERAREN ERANTZUNA.

Joan den urriaren 30eko Osoko Bilkuran, Defñe Abuin andreak, honako hau erran zuen udal-batzorde berrien osakerari buruz:

“Batzordeen banaketaren proposamena ikusi dugunean ohartu gara kirola kultura-batzordearen barrenean sartu dela berriz ere eta, 2003an dagoeneko, banatu egin genituen; gai batek ez du bertzearekin zerikusirik”.

Hor, bi galdera egin zituen: *Zergatik sartu duzue hor*

## 6 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.

El señor alcalde indica que va a dar respuesta al ruego y a la pregunta formulados por la concejal doña Defñe Abuin en la última sesión. A tal efecto da al secretario el siguiente texto, para que proceda a su lectura:

### “CONTESTACIÓN A LA PREGUNTA DE ONIN UDAL TALDEA.

En el pleno del Ayuntamiento de Lesaka del pasado 30 de octubre, Dña. Defñe Abuin, ante la composición de las nuevas comisiones del mismo, manifestó lo siguiente:

“Cuando hemos visto la propuesta del reparto de las comisiones, nos hemos percatado que deporte vuelve a la comisión de cultura algo que en el 2003 ya lo separamos, no tiene nada que ver un tema con el otro”.

Aquí realizó dos preguntas. *¿A qué es debido? ¿A la hora*

berriz? Taldeei dirulaguntzak emateko, denak pakete berean joanen dira de subvencionar a los grupos va ir en el mismo paquete?

Abuin andreak dio gauza batek ez duela bertzearekin zerikusirik, baina erran beharra dut gure ustez afizionatuen kirola, berez, kultura dela. Guk uste dugu jende anitz solastatzen dela alde batetik kirolari buruz eta bertze alde batetik kulturari buruz eta horrela kirolari nolabaiteko profesionaltasun-kutsua ematen diotela, baina guri dagokigun kasuan ez da inondik inora horrela. Gure ustez, Lesaka bezalako herri bateko kulturari, gauza anitz sartzen dira eta pertsona interesatu batzuek horiek banatzeko joera dute. Beharbada, orain banatuta dauden eta kultura osatzen duten zatiak hurbildu behar genituzke, batzuk bereizita baitatude eta, hala, hobeki probetuko genuke herriko elkarten funtzionatzeko gaitasuna; izan ere, Lesakako elkarte guztiak kultura- eta kirol-elkarteak dira, gastronomikoak izateaz aparte.

